


puntuatua

129



**BASOA ETA ZAINDARIA
DEBAGOIENeko BASA ANIMALIEN ETA LANDAREEN ETA EHIZAREN KONTROLAREN ARDURADUNA**



PUNTUA 129
2017-12-01 EGUBAKOITZA
ARGAZKIAREN EGILEA:
JOSU BILBAO



AURKIBIDEA

- 4 **Bat-batean** Eider Rodriguez
- 6 **Irudiz** Opari naturalak
- 8 **Erreportajea** Fauna eta flora babesten
- 20 **Elkarrizketa** Borja Aginagalde, Irargiko zuzendaria
- 24 **Osasuna** Hitzik gabe
- 26 **Kirola** Dordoka taldeak 25 urte
- 28 **Adituen esanetan** Ikasketa agirien balioa nazioartean
- 30 **Otorduan** Hilarion jatetxea: dastatze menuak
- 32 **Moda** Oihana Mendieta modeloa
- 34 **Motorra** Iban Rodriguez, gazteegi etendako karrera
- 36 **Gure artistak** Dorleta Fernandez oñatiarra
- 38 **Kultura** *Proiektors* ekimena
- 40 **Liburu artean** *Jenisjoplin*
- 42 **Gure altxorrak** Luis Peña Gantxegi arkitekto oñatiarra
- 45 **Gadgetmania**
- 46 **Handitzen, handitzen** *Plazan bazan*
- 47 **Jaioberriak**

IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Nagore Ipiña *Gauzak*
- 16 **Hainbat aburu** Rosa Mondragon *Pertsonak 4.0*
- 16 **Eztabaida** Erosketa *on line* egin eta etxe barruan jaso
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
- 17 **Errematea** Iñaki Ugarteburu *Lau t'erdiko finala*
- 18 **Talaiatik** Adrian Zelaia *Lanaldi zatitu bertikala eta langabezia saria*
- 44 **Komunikazioa** Amaia Pavon *Marketin irizpideak ikus-entzunezkoetan*

IRITZIA NIRE TXANDA



Nagore
Ipiña

Gauzak

Gauzak izeneko denda baten argazki bat txiokatu zuen Ikerrek joan den asteen; testuan, *zehaztea mugatzea da*. Joxerrak gaur, berriz: *Zehaztea kuantifikatzea da*. Mugatu, zehaztu, kuantifikatu. Eskertzen dira zehaztapenak batzuetan. Nik, behintzat, eskertzen ditut noiz edo noiz –testu honek 1.986 karaktere ditu–. Zehaztapenak laguntzen didate pentsatzen; noraeza eta kaosa ordenatzen. Zehaztean mugatzen dugu, bat nator Ikerrekin. Zehaztea mugatzea bada, kuantifikatzea ere bada mugatzea? Ez dut uste, baina a ze *gauza*.

Ez dut sinplifikatu nahi, baina orrialde honek mugatzen du esku artean duzun testua, eta, beraz, nork bere buruari ezartzen dizkion mugez arituko naiz –lerroartean irakur dezakezu ere hezkuntza sistema–. Nahiago nuke muga horiek lausotuko balira; inkluso desagertu askotan. Sormena, askatasuna, erronkak, ametsak dira mugagabeak. Sormena eskatzen duen zerbaiten aurrean ez ditut mugak gustuko; ezezagunari aurre egiteko aukerak eskaintzen dizkiodalako, nire buruari mugarik gabe makroerrelatuak eraikitzekeo poderioa. Aske izan naiteke –edo pentsatu, behintzat– mugarik gabe. Erronken aurrean ere imajinario guztia jartzen dut martxan. Mugek ez didate amesten uzten. Atea ireki eta haize freskoa sartzen den moduan, mugak kendu eta presiorik gabe, libre sentitzen naiz.

Ez ditut gustuko, ez ditut nahi, baina beti ezartzen dizkiot mugak nire irudimenari, hegoak ebakitzen dizkiot askatasunari, esanahia aldatzen diet erronkei eta gauerdiko amets goxoetan esnatzen naiz. Ez nuke mugatzailea izan nahi; mugekin jolastu nahiko nuke. Kendu, jarri, buelta eman, aktibatu, desaktibatu. Amestu ostean zehaztu, baina lehenengo, haize freskoa sentitu. Kuantifikatzea desaktibatuko dut, oraingoz; mugatu gabe zehaztera heldu nahiko nuke. Konplikatu iruditzen zait puntu horretara heltzea, egunero erabiltzen ditudalako konturatu gabe adberbio kuantifikatzaileak, mugatzaileak eta aposizio zehaztatzaileak. *Gauza* larregi. Eskerrak euskaraz, behintzat, mugagabeak hor ditugula... ■■■

EZ DITUT GUSTUKO, BAINA
BETI EZARTZEN DIZKIOT
MUGAK NIRE IRUDIMENARI

puntua

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarkea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe

Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate
Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga
Kluba eta banaketa Marta Leturia
Maketazioa Iñaki Iturbe, Aitor Lagoma.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943-25 05 05
harpidetza@goiena.eus
Logo Gordailua: SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eider Rodriguez

BAT-BATEAN

Testua: Txomin Madina / Argazkia: Lander Garro

Iparraldean bizi eta Hegoaldean lan egin, *Bihotz handiegia* izeneko lana argitaratu berri du, bere laugarren narrazio liburua.

Liburua osatzen duten sei narrazioek ez omen dute lotura zuzenik, baina bai elementu komunik: muga. Gerora konturatu naiz horretaz. Narrazioak idatzi ostean, bilduma ikusitakoan ohartu naiz konstante horretaz; ez da nik bilatu dudan zerbait. Mugak erabaki nauela esan daiteke, eta baliteke ni mugaren bi aldeetan bizi naizelako izatea. Narrazio hauekin, mugaren bi aldeak bereizten dituen marraren gainean ibili naiz hanka puntetan: aduanaren bi aldeak; heriotza eta bizitza; orojaleak eta beganoak; munstroak eta arruntak; bihotza eta burua...

Zergatik narrazioak, eta ez eleberri osoak? Eta zergatik eleberria? Beti galdetzen didate hori. Askotan daukat istorioak kontatzeko gogo, eta, niretzat, oso egokia da ipuinaren formatua; istorio bakoitzarekin bi urte eman beharko banitu, pentsa! Inoiz ere ez nau harrapatu eleberri baten espazioa eskatu didan istorio batek. Nahiko leiala izan naiz sentimendu horrekin: jarraitu diot kontatu nahi nuenari, eta eraman nau eraman nauen orrialde kopurura.

Istorioa idazten hasi, eta ezin bukatu; gertatu zaizu halakorik? Bai. Ez zait hainbestetan gertatu behin idazten hasitakoan, baizik eta buruari bueltak ematerakoan. Beti dauzkagu oharrez betetako koadernoak, eta ohar horietako ehuneko txiki bat bihurtzen da idatzitako istorio.

Zenbat buelta ematen dizkiozu idatzitakoari amaitutzat jo aurretik? Askoi! Idatzaldi asko egiten ditut: bukaera eta hasiera ezberdinekin; pasarte batekin edo bestearekin... Zenbat eta gehiago hurbildu azken emaitzara, orduan eta neurotikoa jartzen naiz.

Sarean ere lor daiteke liburua, *Bihotz handiegia*.

Gaur egun ezinbestekoa da hori? Ez dakit ezinbestekoa den. Susa argitaletxeak *copy left* politika dauka, eta ondo iruditzen zait. Nik ere asko erabiltzen dut irakurgailu elektronikoa. Ez dut uste paperezko liburuen produkzioa suntsituko duen zerbait denik; paperezko liburua baino gauza sofistikatuagorik ez da existitu, nekez gaindituko da hori.

Idazle moduan, zerk pizten du zure interesa? Besteek idatzitako liburuek: nire kasuan, lotura estua dut idazle eta irakurle alderdien artean. Besteak irakurrita, nola hazten naizen sentitzen dut. Askotan, idatzi nahi dudanaren oihartzun txiki-txiki bat aurkitzen dut besteen literaturan, trapolin handia izan daitekeena, nahiz eta forma eta eduki aldetik ez izan zerikusirik idatzi gura dudanarekin. Eta, era berean, arrarotasunak asko erakartzen nau: normala dirudien horretan aztoramen puntua jartzen duen horrek.


Zenbat liburu irakurri dituzu 2017an? Askoi; liburu asko eta askotarikoak irakurtzen ditut: orain, antropologiari buruzko saiakera bat; orain, nobela grafiko bat; orain, eleberri korear bat... Nahasita irakurtzen ditut. Orain, hiru libururekin nabil batera; aldaratearen arabera heltzen diot batari edo besteari.

Atzerrian ere izan zara, euskal letren enbaxadore; esaterako, Kroazian. Ikusten bagaituzte, nola ikusten gaituzte kanpoan? *Enbaxadore* asko esatea da, e? Ez dakit ikusten gaituzten ere. Kroaziakoan, esaterako, hizkuntza asko zeuden, eta euskara natural-natural zegoen besteekin. Baina hor ere, hizkuntza hegemonikoek beste pisu bat zuten; hor nekez etorriko da aldaketa, txikiok txiki izaten jarraituko dugu.

Irakasle eta ikerlari zara EHUn. Ikerlari, zerena? Literaturarena, batez ere. Oraintxe, hain zuzen ere, gatazkaren, generoaren eta euskal literaturaren gaineko ikerketa-talde batean nago, eta datorren astean horren inguruko kongresu batean hartuko dugu parte, Galesen, geure ikerketa azaltzeko.

Idazleek zein leku izan beharko lukete gizartearen? Kulturak, bere horretan, daukana baino askoz toki handiagoa izan beharko luke. Negargarria da gurean, hezkuntzan, kalean, herri honen proiektioan... kulturak duen espazioa. Ez dugu ezer ospatzeko.

Badator Durangoko Azokako zurrumbiloa. Nola bizi duzu? Esan duzun legez, erakarri eta uxatu egiten gaituen zurrumbilo baten moduan. Aspaldiko partez, *full time* bizi izango dut aurtengoa: batetik, *Bihotz handiegia*-rekin; eta bestetik, Julen Ribas arrasatearrarekin egin dudana *Santa Familia* komikiarekin. Bi urte eta pikuko prozesua izan da komikia, eta gozamina izan da. ■■■



Opari naturalak

IRUDIZ

Argazkia: Aiora Umerez / Testua: Iker Oñate

Naturak opariak uzten ditu egunero. Herriko auzoetan barrena paseo soil bat egitea besterik ez dago haren altxorrez goatzeko, bilatzen duenak aurkitu egiten du-eta sarri. Irudia egin zuenak topatu zuen berea, Oñatiko San Martin eta Olapoto auzoen arteko bidean. Aukera galbidean eror ez zedin, intxaurrak zelaian jarri eta klik egin zion argazki makinari. Ez ziren edozelako fruituak; agerian zuten bihotza. Garaiak garai, zuhaitzak hasiak dira hilabeteetan helduta izan dituzten fruituak askatzen: opari naturalen aroan gaude murgilduta. ■■■





Fauna eta flora babesten

Udazkena lan-karga handiko garaia da Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuko basozain Jon Ugarterendako. Izan ere, faunaren eta floraren ohiko kontrolaz gain, ehizaren zaintza ere badarama. Eta animaliak berreskuratzeko proiektuetan dabil hilabete hauetan. Testua: **Josu Bilbao.** Argazkiak: **Josu Bilbao eta Gipuzkoako basozainak.**

Jon Ugarte basozaina, uso-postu bateko zigilua konprobatzen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuko basozaina da Jon Ugarte oñatiarra. Hark darama Debagoieneko animalien eta landareen kontrola. Baina, horrez gainera, beste hainbat jarduera ere egin behar izaten ditu. Udazkena lanez betetako sasoi da; izan ere, ehiza garaian, basozainek eurek kontrolatzen dute ehiza jarduera.

48 basozain dira, guztira, Gipuzkoan, eta horietatik bederatzi dira fauna eta flora zerbitzukoak. “Nik Debagoien ingurua eramaten dut. Oso eremu handia da, baina zonako basozainak ere badaude, mendiak eramaten dituztenak, eta horiek ere laguntzen digute. Parke naturaleko basozainak ere laguntzen dit animalien eta faunaren kontrolean”, dio Jon Ugartek.

“Gure sailean, alde batetik, Mendien Zerbitzua dago, eta, bestetik Basa Animalien eta Landareen Zerbitzua. Mendi Zerbitzukoek basoak eramaten dituzte. Mozketa-baimenak ematen dituzte eurek, eta diru laguntzez ere arduratzen dira. Denbora luzea eta lan handia darama horrek, tramitazio zorrotza egin behar da eta. Erreketa-baimenak ematea eta mendi publikoen kudeaketa ere euren ardura da. Guk eginkizun ezberdinak ditugu, baina, funtsean, eremuko faunaren eta floraren ezagutza, habitatak zaintzea eta kontrol-lana egitea da. Gainera, ehiza eta arrantza ere gure ardura dira. Udazkenero, gainera, arrantza elektrikoa egiten dugu errekan, bertan zenbat arrain dauden zenbatzeko eta horren kontrola eramateko”, azaldu du basozainak.

“Horrez gain, mendiko bizikletekin, 4x4 autoekin edota motorrekin mendian bideetatik kanpo norbait ikusten badugu, bidetik joateko esaten diogu, lehenik, eta, ez badu kasurik egiten, salatzeko aukera ere badugu. Izan ere, gu agente judizialak gara eta gure sinadurak balio juridikoa du. Ni joan izan naiz epaiketetara. Lehen, inpunitate handiagoa zegoen, agian, baina orain, ingurumenarekin sentsibilizatuago gaude. Orain, ingurumeneko fiskalak datuak eta txostenak eskatzen ditu”, dio Ugartek.

Basoko suteetan eta erreskateetan ere parte hartzen dute basozainek, eta, erreketan edota ibaietan isurketak egiten badira, eurek daramate kontrolaren ardura: “Fabrika batek zerbait botatzen badu edo ukuilu batek txiza bota duela... Ur Agentziarekin koordinatzen gara, eta guk erreketako fauna eta flora zaindu behar dugu isurketen aurrean”. Horrez gain, babestuta dauden landareen eta zuhaitzen jarraipena ere egiten dute. “Adibidez, espezie bat nonbaiten sartu nahi bada, haziak biltzen ditugu. Fruituak batu eta gure haztegia eramaten ditugu, gero leku berezietan landaketak egiteko”, dio basozainak.



ESPEZIE EXOTIKOEI AURRE EGITEA DA GAUR EGUN ARDURA NAGUSIENETAKO BAT

BISOI EUROPARRA BERRESKURATZEKO LANEAN DABILTZA BASOZAINAK

Aurreko orrialdean, goian, Jon Ugarte bisoien plataforma bat konprobatzen Elorregi inguruan. Beheko argazkian, bisoi plataforma barnean dagoen aztarnategian, arratoien oinatzak.

Goiko argazkian, bisoi europar bat.

Bisoi europarraren proiektua

Proiektu polit batean murgilduta daude, duela bi-hiru urte ezkerro, Gipuzkoako basozainak. Izan ere, galtzeko arriskuan dagoen bisoi europarra berreskuratzeko eta ugaztun berezi horri jarraipena egiteko, Life programaren barnean, erreketan plataformak jarri dituzte: “Bisoi europarra berreskuratzeko lanean gabilta. Horretarako, bisoi amerikarra kendu behar dugu bertatik. Plataformak jartzen ditugu erreketan, eta ea bisoirik sartu den konprobatzen dugu, buztinean aztarnarik utzi duten edo ez konprobatuta. Hemen, europar bakarren bat agertu zaigu, Oñati aldean, baina agertzen zaizkigunak amerikarrak dira, batez ere”.

Arazoa bisoi amerikarra da. “Markak badaude, tranpa bat jartzen dugu, kaiola bat, eta amerikarrak jausten direnean erradikatu egin behar ditugu. Inbasorea da espezie hori, kaltegarria, eta beste espezie batzuei egurra ematen die, gainera. Borroka zaila izan arren, Gipuzkoan txukun gabilta. Hogeialetik gora jausi dira bi urtean, eta bisoi amerikarren kopurua jaitsi egin da gure erreketan. Elorregi eta Oñati aldean nahiko jausi ziren. Hor populazioa naturalizatu egin zela uste dut. Ez dakigu nondik etorri ziren, baina inguru hau asko gustatu zitzairen eta familia batzuek kumeak izan zituzten. Orain, badirudi kontrolatu ditugula”, azaldu du Ugartek.



Bisoi europarra Europa mailan egoera eskasenean dagoen ugaztuna da. Desagertzen ari da, eta, gaur egun, oso isolatuta dauden populazioak gelditzen dira. Horien artean, Errioxa, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoa artean badaude ale batzuk: “Urte batzuk daramatzagu bisoiarekin lanean. Bisoi amerikarra erradikatzeko eta europarra indartzeko. Oso proiektua indartsua da, eta Leitzaranen, adibidez, ari dira bisoi europar batzuk askatzen”.

Espezie exotikoek sortzen dituzten kalteei aurre egitea da, hain zuzen ere, basozainen buruhausteetako bat: “Arazo larriak ematen ari dira kanpoko espezie inbaditzaileak. Hala ere, faunari dagokionez, arazo larriena, une honetan, linea elektrikoak direla diote, bertan erortzen direlako babestutako espezie ugari; harrapariak, batez ere. Baina egia da kanpoko espezie exotikoak arazo handia direla. Landareei dagokienez, panpa-lezkarena izugarria da; errepede bazter guztietan daude. Kontu larria da, eta oso serio hartu beharrekoa, baliabide gehiagorekin. Lan gehiago egin beharko genuke”.

Sarraskijaleen proiektua

Bisoi europarraren proiektuaz gain, Europatik bultzatutako Life proiektuen barnean, sarraskijaleen jarraipena egiten ari dira Gipuzkoan. Hegaztien kontrola egiteko, Orkatzategira joaten da ibarreko basozaina: “Batez ere, ugatzten, sai arrearen eta sai zuriaren jarraipena egiten ari gara. Sai zuriarekin oso txukun gabiltza eta Debagoienean, esaterako, baditugu bikote batzuk. Gipuzkoan ondo goaz, baita miru gorriarekin ere. Orain, bestalde, miru-gorriak markatzen hasi gara. Guretako, arrunta da miru gorria ikustea, baina desagertzeko arriskuan dago katalogatuta. Orkatzategin, beraz, umatzen direnean zaintza lanak egiten ditut. Hala ere, horrelako proiektuetan oso garrantzitsua da beste lurraldeekin ere koordinatzea”.



Ehiza garaia

“Arrantzak behera egin du nabarmen –udaberrian arduratzen dira, arrantzatzea baimentzen denean–, baina ehizarako zaletasun handia dago Gipuzkoan; batez ere, oilagorrei dagokienez”, azaldu du Ugartek.

Izan ere, ehiza larriaren eta xehearren kontrolaz arduratzen dira Basa Animalia eta Landareen Zerbitzuko basozainak. Ehiza larriaren barruan, basurdea eta orkatza dira ehiza daitezkeen bakarrak, eta uxaldietan ehizatzen dira, aste bukaeretan. Ehiza xehea, bestalde, egunero egin daiteke, eta, hain zuzen ere, hegaztiak –galeper arrunta, txoloma, pagausoa, faisai arrunta, eper gorria, basahatea, birigarroa, oilagorra...–, untxia, erbia eta azeria ere sartzen dira. “Gaur egun, irailean hasten da ehiza garaia, eta urriaren 12an ehiza orokorra hasten da, otsailera arte. Basurdeena, esate baterako, martxora arte irauten du. Horren harira, oilagorren ehiza ere luzatzeko eskatzen ari dira, eta hor badugu borroka txiki bat oilagorren zaleekin”.

Gipuzkoan zaletasun handia dago oilagorrek ehizatzeke, eta horregatik ondo kontrolatu behar dutela azpimarratu du Ugartek: “Oilagorra egunero



ARRANTZAK “BEHERA” EGIN DUEN ARREN, EHIZARAKO “ZALETASUN HANDIA” DAGO

EHIZTARIEK GEHIENETAN ERRESPETUZ JOKATZEN DUTELA DIO BASOZAINAK

ZAURITUTAKO ANIMALIA BAT AURKITUZ GERO, 112 ZENBAKIRA DEITU BEHAR DA

Ezkerretik eskumara:
basozainak harrapatutako oilagorra; basozaina ehiztari batekin kontrol lana egiten; ezkur bilketa, haziak beste toki baten landatzeko; zauritutako martin arrantzale bat Jon Ugarte basozainaren eskuetan.



ehiza daiteke hemen, baina egunean hiru pieza bakarrik. Gainera, zelatan ehizatzea debekatuta dago. Orain, garrantzitsua da goizean goiz eta iluntzean kontrolatzea ea ehiztaririk dagoen orduetatik kanpo. Gauetan oilagorrek kontrolatzen ditugu guk. Harrapatu egiten ditugu, markatu eta gero non jausten diren ikusten dugu. Asko ehizan jausten dira, eta, ditugun datuekin, oilagorrari egur handia ematen ari zaiola ikusi dugu”.

Ehiztariei, dokumentazioa eta munizioa kontrolatzen diete, batez ere, basozainek: “Legez kanpoko munizioa badarama ehiztariak, konfiskatu egiten dugu. Basurdeak eta orkatzak, adibidez, balarekin ehizatu behar dira eta ezin dira perdigoiarekin bota; eta ehiza xehean, alderantziz. Kargadorean lau edo bost kartutxo eramatea ere ilegala da; hiru, gehienez. Ehiztariak lizentziarik ez badu, nota hartzen diogu eta ondoren salaketa jartzen da, baina, adibidez, oilagorra zelatan ehizatzen badago, arma konfiskatzen zaio, baita pieza ere. Arrano bat edo beste txori bat botatzen badu, berdin egiten dugu. Arazoa larria bada, konfiskatu egiten da arma, bai, baina, alde horretatik, esan behar da zorte handia dugula, jendeak asko errespetatzen duelako. Baten bat beti aurkitzen duzu, baina ehiztariak errespetuarekin jokatzeko dute, gehienetan, eta ez dute arazorik jartzen dokumentazioa eskatzean. Guretako, garrantzitsua da eurek ikustea basozainak mendian ere bagabiltzala, modu serioan; eta legea betearazteko gaude. Animaliek ez dute defentsarik; horrenbestez, guk geuk defendatu behar ditugu legearen aurrean. Hori da gure lana”.

Ehiza debekatuta dauden erreserbak bi dira Debagoienean. Izan ere, Aloña-Urbiaz gain, aurtan, Orkatzategi ere erreserba moduan ezarri dute. “Zorionez, isileko ehiztariak ez dugu arazorik hemen. Hala ere, lazoren bat aurkitu izan dut noiz edo noiz basoan”, adierazi du Jon Ugartek.



Basurdeekin arazoak daude, gainera, azkenaldian kalte ugari sortzen dabilta eta: “Basurde ugari daude, eta horregatik egiten dira uxaldiak. Arazoak daude, nekazaritzan eta zirkulazioan kalteak sortzen ari direlako. Gero eta gehiago ehizatu nahi da basurdea. Hala ere, animaliek atsedena behar dute; umatzeko, batez ere. Gainera, txakur asko daude mendian ehiza garaian, eta animaliak aztoratuta ibiltzen dira sasoi honetan. Ehiztariak eurek ere ez dute nahi izaten udaberrian ehizatu, animaliak umedun daudelako, eta min ematen die haurdun dagoen animalia bat ehizatzea. Ehiztariaren etikaren barnean dago hori”.

Zauritutako animaliak batzen

Mendian, basoan edota herri barnean aurkitzen diren zauritutako animaliak jasotzeko ardura dute basozainek, besteak beste. “Saiak asko hartzen ditugu, uda bukaeran, batez ere, eta dei dezente jasotzen ditugu. Ehiza garaian, zapelatzak eta gabiraiak ere jaso izan ditugu. Gabiraiak, adibidez, herri inguruetan ibiltzen dira txorien atzetik, eta kristalen kontra jotzen dute sarri. Autoak harrapatutako orkatzak ere izaten ditugu. Kasu horietan, Ertzaintzak abisatzen digu, eta gero, Arizmendiko mintegira edo Arrano Etxera eramaten ditugu. Sugereri bat etxe baten barruan ere aurkitu izan dugu eta pase garaian arranoak eta belatzak ere bai”, aipatu du basozainak.

“Informazioa emateko orduan huts egiten dugula uste dut. Orkatz kumeak, esaterako, bakarrik ikusten baditugu basoan, bakean utzi behar ditugu. Ohikoa da orkatzak kumea badu ama beldurtzea norbait ikustean edo txakur bat antzematean, eta jaioberria bakarrik gelditzen da. Jendeak hartu egiten ditu, arduratuta, baina bakean utzi behar dira, ama bueltatu egingo delako. Udaberrian ere urubi asko jasotzen ditugu. Urubiek habiatik salto egiten dute, eta onena bakean uztea da. Hegazti horiek, apur bat koskortzen direnean, habiatik salto egiten dute. Batetik bestera mugitzen ikasten ari dira sasoi horretan, eta, ez badago arriskurik, errepidea alboan dagoelako edo katuren bat dabilelako, bakean uztea edo alboko zuhaitz batean uztea da onena. Guri ere dei diezagukete, noski, baina onena bakean uztea da”, dio Jon Ugarte oñatiarrak.

Animaliaren bat zaurituta ikusiz edo aurkituz gero 112 zenbakira deitu behar dela gogoratu du Ugartek: “Eurek bideratuko dute gurera deia. Erreketan isurketak badaude ere, 112 zenbakira deitu behar da. Bestela, 943 11 21 11 zenbakira, Foru Aldundira; adibidez, norbaitek basurde kalteak baditu edota ehiztari bat etxetik gertu tiroka badabil. Guretako, oso garrantzitsua da, horregatik, jendea kontzientziaztea eta informazioa ematea. Eskoletan, hedabideetan... Jendeak ikus dezala zer lan egiten dugun. ■■■



Larrialdi
telefonoa DOAN
IGOGAILU
GUZTIAN



24 orduko asistentzia
abisu guztientzat

Iraupen-konpromisorik
gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua
100€-tik aurrera

Euskarazko zerbitzua

Asistentzia momentu
oro Debagoienetik



Itzaltze
automatikoa
kabinan LED
teknologiarekin

Eskatu aurrekontua

www.bertako.eus • info@bertako.eus

GARAIA Goiru 1 A -20.500 ARRASATE • 943903450

HAINBAT ABURU



Rosa Mondragon

Pertsonak 4.0

Oraintsu, pertsonen gestioarekin zerikusia zuen topaketa batean izan naiz. Egia esan, ideia eta kontzeptu interesgarriak entzuteko aukera izan da, baina baita hausnarketarako unea ere.

Etengabe entzuten dugun terminoa da *Industria 4.0* delakoa, eta berarekin lotuta hainbat kontzeptu: garapena, berrikuntza... eta beste hauek: industria adimentsua, lantegi errobotizatua, makinak eta pertsonen arteko konektibitatea...

Eta bat-batean burura datorkidan galdera da: zein toki

izango du pertsonak 4.0 jauzian? Baina horri ere eman zioten erantzuna topaketan. Gizartea *bipolarizatu* egingo omen da; hau da, bi polo edo talde izango dira etorkizuneko enpresa/gizartean: makinek egin ezin duten eskulan konplexua egingo dutenak eta makinak lana gidatu edota programatuko dutenak –adimen handiko ardura izango dutenak–. Eta, horren ondorioz, litekeena da erdi mailako klasea desagertzea; hau da, beheko poloan daudenek 1.000 euro irabaztea eta goiko poloan daudenek 10.000 euro. Panorama kezkagarria da benetan.

Testuinguru berean, hizlari batek egunean bertan bizi izandako esperientzia azaldu zuen. Aireportuan makina baten aurrean egin zuen *check-in*-a, eta baita maletaren fakturazioa ere. Eta hegazkinaren zain zegoela, *burger* batera joan zen eta han ere ukipen-pantaila bitartez eskatu zuen edatekoa, eta pareko barran jaso. Hori bai, inork ez zion irribarre egin, inork ez zizkion egun onak eman, eta inork ez zion hegaldi onik opa izan!

Horixe, ba, ez dezagula iparra galdu, mesedez! ■

EZTABAIDA

EROSKETA 'ON LINE' EGIN ETA ETXE BARRUAN JASO

Amazon Key zerbitzua aurkeztu dute. Sarraila eta kamera berezi bat erosi eta atean jarrita, banatzaileak kode bat jasoko du etxera sartu eta erosketa uzteko, nahiz eta bertan inor ez izan.



JUAN ANTONIO GARCIA
BANATZAILEA

“Arriskutsu ikusten dut sistema berri hori eta banatzaileondako ardura handiagoa izango litzatekeela uste dut. Izan ere, etxean zerbait gertatuko balitz, gure ardura bezala ikusiko lukete askok. Nik, egia esan, nahiago dut gaur egun bezala, jabea etxean ez baldin badago, abisu-oharra utzi, eta berriro paketea uztera bueltatzea, jabea etxean dagoela, hark jaso dezan eskatu duen paketea. Seguruagoa iruditzen zait orain arteko sistema”.



MAIALEN SANTOS
'ON LINE' EROSKETA

“Geroz eta ohikoagoa da erosketak Internet bidez egitea, leku fisikora joateko beharrik gabe. Bezeroei erosketa errazteko ahaleginetan dihardute hainbat enpresak, eta Amazon ere dagoeneko hasi da horretan. Baina erosteko erraztasun eta baliabiderik falta ez zaigun moduan, nire iritziz, gure etxera ezezagun bat sartzeko beharrezko konfiantza falta zaigu oraindik, nahiz eta kamerak banatzailearen lana ikustea ahalbidetu”.

XIXILI

Helena Azkarragaurizar



RAUL URIARTE
'MERKATARI'-REN KUDEATZAILEA

“Uste dut hobe dela denda fisikoetara joan eta zuzenean bertan egitea erosketak, gertutasun horrek laguntzen duelako bezeroaren benetako beharra asetzen. Sistema berri hori ez dut ikusten oso fidagarri, eta, benetan ondo ezarri arte, ni neu ez nintzateke halako iniziatibetan parte hartzera animatuko. *On line* erosketek, gainera, komertzio txikiak kaltetzen dituzte eta herrian erosten saiatu behar dugu”.



IRMA JUARISTI
TXANDA ELKARTEA

“Larregi iruditzen zait banatzailea etxeraino sartzeko. Internetez erostea erosotasun ugari ditu, baina, askotan, ez gara konturatzen horren atzean dagoenarekin. Balioan jarri beharko genuke herriko komertzio txikiak egiten duten esfortzua eta lana. Hausnartu egin beharko genuke familia asko bizi direla herriko komertzioetan lan egiteaz. Herritarrak kontzientziatu beharko lirateke herrian erostea daukan garrantziaz”.

ERREMATEA



Iñaki Ugarteburu

Lau t'erdiko finala

Semeak komentatu zigun azaroaren 19an Bilbon jokatu behar zen finalera joan nahi zuela. Familian berba egin eta hiru joatea pentsatu genuen. Sarrera bakoitza 50 euroraino ordaintzeko prest geunden.

Goizeko 10etan irekitzen zen salmenta, eta 10:10erako ez zegoen sarrerarik. Hortaz, etxean ikustea *erabaki* genuen, eta han elkartu ginen familia eta lagunak, giro ederrean.

Altuna eta Urrutikoetxea, gipuzkoarra bata –nahiz eta Athleticzalea izan– eta bizkaitarra bestea. Pilotalekua beteta –nola ez–, eta kantxan kirolari apartak. Primerako osagaiak.

Ez da erraza izaten finalean duzun dena erakustea, baina a zer-nolako ikuskizuna eskaini ziguten! Urruti, nahiz eta esperientzia gehiago izan finaletan, txapelketan emandako mailatik urruti ibili zen; Altunak, bere partidurik onena egin barik, garaipena lortu zuen. Hala ere, tanto ikaragarriak eskaini zizkiguten, abiadura, haserreak, bueltak... eta amaierako besarkada eredugarria.

Pilotak irabazi zuen. Zorionak bioi!

Bi ohar txiki:

1. Beste kiroletan bezala, epaileek bideoa erabili beharko lukete.

2. *Urruti eta Pablito*ren artean, gaztelaraz! A zer *tristura!* –Iñaki Galdosek sortutako txioa–. ■



Adrian Zelaia
Ekai Center

Lanaldi zatitu bertikala eta langabezia saria

Lanaldi zatitu “bertikaleko” langileen langabezia sarien arau espainiarrak “legez kanpokotzat” hartu ditu –europar legediaren aurkakoa izateagatik– Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak abenduaren 9an emandako epaiak.

Lanaldi zatituko langileen artean, egunero lanordu gutxiago lan egitearen ordez lanegun gutxiagotan lan egiten dutenak hartu ohi dira lanaldi zatitu “bertikaleko” langiletzat. Kasu hauetan, Espainiako arauen arabera, lanegunak baizik ez dira kontuan hartu behar langabezia sariaren iraupena zehazteko oinarriarako.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak aztertu duen kasua Maria Begoña Espadas Reciorena izan da, 12 urte eta erdi baino gehiago garbiketa zerbitzuetan modu jarraituan aritu zena. Kontratuaren amaieran eta

langabezia saria eskatzeko orduan, SEPEk (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) 420 eguneko langabezia saria onartu zion, eta ez bere ustez zegokion 720 egunekoa. Espainiako legediaren irizpidea hartu zuen kontuan SEPEk, eta, horren arabera, lanean izandako sei urte osoak kontuan hartu gabe, benetako lanegunak baizik ez zituen kontuan hartu –1.387, kasu honetan–.

Horren aurrean, “epaitu aurreko” arazo bat aurkeztu zuen, Europar Batasuneko Justizia Epaitegiaren aurrean, Bartzelonako 33. zenbakiko Gizarte Auzitegiak. “Epaitu aurreko” galdera horren bitartez, Espainiako legediaren aipatutako irizpide hori Europako arauekin bat zetorren edo ez argitu nahi zen. Bartzelonako Auzitegi horren ustez, lanaldi zatitu “bertikaleko” langile horiek bi aldiz zigortuak dira arrazoi beragatik. Alde

batetik, haien lanorduak, oro har, gutxiago direnez, gutxiago kobratuko dute hileroko langabezia sarian. Bestalde, langabezia sariaren iraupena benetako lanegunen proportzioaren arabera ere murrizten da berriro.

Beste argumentu bat ere azaldu zuen Bartzelonako Epaitegiak. Kontratu mota horren barne, askoz emakume gehiago daude gizonezkoak baino, eta, beraz, Europako arauen aurka izan daiteke Espainiako arauen irizpidea. Gizarte-segurantza arloan, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko tratu-berdintasunaren aurkakoa, hain zuzen.

Indarrean zegoen arauaren alde azaldu zen Espainiako Gobernua, ekarpen- edo kontribuzio-printzipioan oinarrituta. Bere ustez, lan egin ez

diren aldien arabera ez baita onartu behar langabezia saririk.

Arazoa Espainiako araudiaren erredakziotik datorrela hartu behar dugu kontuan. Erredakzio hori, argi eta garbi, lanaldi zatitu “horizontaleko” kontratuei begira dago eginda. Arau horren hitzez hitzeko interpretazioan dago gakoa, horren ondorioak zentzugabekoak baitira izaera “bertikaleko” kontratuen kasuan. Zentzugabeko ondorio horiek ez ziren inoiz gertatu behar eta oso gauza harrigarria da arazo hori birbideratu ahal izateko Europako auzitegietara jo behar izatea.

Luxenburgoko Auzitegiaren epaia Espainiako Gobernuaren irizpidearen aurka azaldu da eta Espainiako araudia Europako legediaren aurkakoa dela adierazi du. Hala ere, arazoaren mamia bera zalantzan jartzeko oinarriarik ez du Europako araudian aurkitu Auzitegiak. Eta gizonen eta

emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioan baino ez du aurkitu erabakitze gaitasunik.

Arazoaren mamia bera zalantzan jarri ez izana deigarria da oso, ikuspuntu kontzeptualetik. Langile hauek bi aldiz zigortuak dira, oso modu nabarian, langabezia saria jasotzeko orduan. Baina Luxenburgoko Auzitegiak ez du lege oinarriarik aurkitu Europako legedian arazo hori zuzentzeko. Edonola ere, zeharkako bide bat aurkitu dute Bartzelona eta Luxenburgoko auzitegiak arazoa konpontzeko. Eskerrak.

Esan dugunez, gaiaren oinarria horren zentzugabea izanik, sinesteko zaila egiten zaigu Europako erakundeen esku hartzea beharrezkoa izatea, ikuspuntu aritmetikotik ere horren nabaria den bidegabekeria zuzentzeko. ■■■

ARAZOAREN MAMIA BERA ZALANTZAN JARRI EZ IZANA DEIGARRIA DA OSO

“Indartzen doa zuhaitz genealogikoa eraikitzearen jarduna”

BORJA AGINAGALDE IRARGIKO ZUZENDARIA

Modu askotara transmiti daitezke historiako gertakariak, askotarikoak baitira horiek uzten dituzten aztarnak. Eta horietako batzuk aurki daitezke artxiboetan –idatzizko dokumentuak, nagusiki–. Horiek, nola ez, baliagarri dira atzera begirakoa aztertzen dihardutenentzat. Testua: **Iker Oñate**. Argazkiak: **M. Hernandez eta Iker Oñate**.

Atzera begirakoaren kontakizuna eraikitzen dihardutenei baliagarri izan dakiekeen aztarna ugari aurki daitezke artxiboetan. Gaur-gaurkoz, gainera, historia berreraikitzearen zeregina ez da soilik adituen kontua; goraka doa familiaren zuhaitz genealogikoa osatzen diharduen pertsona kopurua, esaterako. Horretarako, tartean, lagungarri da Euskadiko Artxibo Historikoa (Irargi). Zehatz esanda, zerbitzu horren gainean berba egin du Borja Aginagalde (Donostia, 1958), Irargiko zuzendariak. **Arrasate Zientzia Elkarteko antolatutako jardunaldietan esku hartu duzu Juan Carlos Guerraz berba egiteko.**

Bi bide landu ditut hitzaldian: batetik, Juan Carlos Guerra historialari eta legegizon arrasatearraren ibilbidea izan dut jorragai –eta, horren baitan, hark argitaratutako liburuak–. Lan asko ez argitaratu arren, informazio kalitate handiko liburuak utzi zituen; gaur-gaurkoz, oraindik ere oso erabilgarri zaizkigu hark idatzitako liburu horiek. Aintzat hartu beharreko datua dugu hori, duela 100 urte inguru idatzitako lanez dihardugu eta. Horrez gain, bestetik, Guerraren garaian zuhaitz genealogikoa eraikitzearen zeregina

nola gauzatzen zen ezagutarazi dut. Gaur egun, baliagarri izan daiteke informazio hori, oso modan dagoen kontua baita: jendeak jakin gura du zeintzuk izan ziren bere arbasoak. Hori horrela, ezin uka azken urteetan gora egin duela zuhaitz genealogikoaren bueltako zaletasunak; Guerraren metodoaren garrantziaren gorakada dakar horrek. Finean, haren lan modua ez da horren zaharkituta geratu. Duda barik, informazio iturri izan daitezke haren argitalpenak; horien artean da *Ensayo de un padrón histórico de Guipúzcoa* bataiaturikoa, 1928an argitaratutakoa.

Zuhaitz genealogikoa osatzeko lagungarri dira artxiboak, ezta?

Zalantza barik, eta horretan zeresana du Guerraren jardunak. Hau da, arrasatearrak metodo zientifikoa zerabilen, beste batzuek ez bezala; zenbaitek arbasoen inguruan entzundako kontuak zituzten oinarritzat –gutziz frogatu gabekoak, tartean–. Horretarako, agiritegi asko bisitatu behar izan zituen Guerrak; besteak beste, Madril eta Euskal Herri ingurukoak. Nik esango nuke sistematika bat eraiki gura zuela eta, horretarako, zona batean sakondu zuela ikerketa; Debagoiena oso presente dago haren idatzietan, beraz. Gainera, aipatu beharrekoa da Guerrak ere lagundu zuela bere jakintzen transmisioan; iza herriaren esku utzi zituen ibilbidean



pilaturiko dokumentu eta argitalpenak. Gauzak horrela, gaur egun, zenbait xeribotan daude horiek. **Beraz, Guerrak gogaoen zuen Debagoiena.** Batez ere, Debagoienean oinarritu zuen ikerketa; ondorioz, zonari erreferentzia egiten dion informazio ugari dago haren idatzietan; duda barik, familiako zuhaitz genealogikoa eraikitzen diharduen debagoiendarrarentzat lagungarri dira haren lanak, prozesuari ekiteko, behintzat. Esan beharra dago Bergarako eta Oñatiko artxiboek esangura handia izan zutela haren jardunean. Besteak beste, aintzat hartu beharra dago haren garaian murrizak zirela bidaiatzeko aukerak, eta, horrenbestez, bizitokiaren inguruan zeuzkan baliabideak erabili behar izaten zituela sarri.

Zuhaitz genealogikoa eraikitzeke zereginaren gorakada aipatu duzu...

Hala da. Indartzen doa zuhaitz genealogikoa eraikitzearen jarduna; esan bezala, jendeak jakin gura du zeintzuk diren bere arbasoak. Euskadiko Artxibo Historikoa baliagarri izan daiteke horientzat, arbasoen bilaketari ekiteko, behintzat. Oro har, esan beharra dago zuhaitz genealogikoa eraikitzearena ez dela denbora laburrera mugatzen den pasioa, jendeak denbora luzez diharduela ikerketan murgildurik. Izan ere, aditu izatera iristen dira batzuk. Azken finean, asko dago ikeretzeko, eta, era berean, interesa pizten duen gaia da.

Orduan, jende asko dabil agiritegietan?

Baiezkoan nago. Kontuan izan beharra dugu agiritegietako dokumentuak historiaren aztarna direla; beraz, ezin uka atzera begirakoaren kontakizuna eraikitzeke baliagarri direla. Esaterako, baliteke historiako gertakizunak ahoz iritsi izana, baina kontakizunean ere aurki daiteke hutsunerik, eta urte tarte batzuetan gertaturikoak ezezagun izan dakizkiguke. Hala, bertsio horiek osatzeko lagungarri izan daitezke artxiboetako dokumentuak. Aipatu beharrekoa dugu denetarik aurki daitekeela Euskadiko Artxibo Historikoa; beraz, ez da soilik zuhaitz genealogikoa osatzen diharduenarendako. Esan bezala, Irargi tresna egokia da ikerketaren alorra dastatzeko. Ostein, ostekoa. Normalean, jendeak ikerketan sakontzeari ekiten dio denborarekin, bestelako agiritegiak aztertuz. Azken finean, esan daiteke eginez ikasten dela.

Eta zer dago Euskadiko Artxibo Historikoa?

Nagusiki, EAEko artxibo ezberdinetan –pribatuetan zein publikoetan– topaturiko dokumentuak daude eskuragai; digitalizatuta daude horiek. Zehatz esanda, 3.500.000 artxibo inguru daude; besteak beste, familien, udalen eta Elizaren jabetzapekoak. Genealogiaz ari garelarik, bestalde, aipatu beharra dago Elizaren bueltako dokumentu asko ditugula; horiek oso baliagarri dira ikertzaileentzat, iraganeko jaiotza asko baitaude horietan erregistratuta. Beraz,

izen eta abizen ugari daude. Gaur-gaurkoz, batez beste, egunean 500 pertsonak baino gehiagok erabiltzen dute zerbitzua; zuhaitz genealogikoa eraikitzearen zereginetan murgildurik daude horiek gehienak.

Dokumentuak digitalizatzen diharduzuela diozu.

Hala da. Modu horretan, errazagoa da bilaketa, eta edonork du horretarako aukera, sarera konektatzeko baldintza besterik ez du behar izan. Interesa duenak bilatu gura duen abizena sartu beharra du bilatzailean, eta horri loturiko dokumentuak agertuko zaizkio. Beraz, erraza da prozedura. Hori bai, ostein dokumentu fisikoa ikertu gura badu, hura dagoen artxibora joan beharra izango du. Esan bezala, datu basean bildutako dokumentu gehienak EAEko agiritegi ezberdinetan daude banatuta; bilaketan dago zehaztuta zein den dokumentuaren jabea.

Eta zein da erabiltzaileen profila?

Esan beharra dago jende arrunta dela Euskadiko Artxibo Historikoa erabiltzaile nagusia. Adituek, oster, bestelako bideak darabilte; haiek artxibo ezberdinak bisitatzen dituzte, normalean. Finean, bestelakoa da ikerketa prozedura. Horrek, hala ere, ez du esan gura jende arruntak agiritegiak bisitatzeke aukera baztertzen duenik: litekeena da sareko informazioarekin guztiz ase ez, eta jatorri dokumentuetara jo gura izatea. Baina, orokorrean, zerbitzuaren erabiltzaileak pozik daude sarean aurki dezaketenarekin; aski dute horrekin.

Baina jende arruntak ez du adituek beste ezagutuko ikerketa prozesua, ezta?

Hala da. Eta baliteke hasieran ohikoa baino denbora luzeagoa ematea ikerketan, prozedura ezezagun izateagatik. Horregatik, ezjakintasunari buelta emateko bitartekoak jartzen dihardugu. Adibidez, bilaketan laguntzeko azalpenak bilduko zituzketen tutorialak sortzeko egitasmoa jarri dugu martxan. Alegia, jendeak informazioa biltzen du, baina baliteke, ostein, pilaturiko datu horiekin guztiekin zer egin ez jakitea; datuak antolatzen erakutsiko genieke, kasu horretan. Bestalde, berbaldiak ere antolatzen ditugu tarteka, bilaketa eraginkor egiteko bitartekoak eskaini guran, esaterako. Azken finean, kontuan izan beharra dugu artxiboak denonak direla, eta guztiok ditugula erabilgarri.

Eskaini aurretik bildu beharra dago sarri...

Jendearen bilaketa errazteak aurre-lanketa dakar, duda barik. Hori dela eta, EAEko artxibo ezberdinetan aurkituriko dokumentuak inbentariatu, katalogatu eta digitalizatu beharra dugu sarean eskaini aurretik; ogibide dinamikoa da, horrenbestez. Esan beharra dago, gainera, dinamismo hori mesedegarria dela artxiboko langileentzat, etengabe baitihardugu gure jakintza elikatzen. Dokumentuak irakurtzeak bakarrik ez, jendearekin hartu-eman izateak ere laguntzen du



“DENONAK DIRA AGIRITEGIAK, ETA GUZTIOK DITUGU ERABILGARRI”

“JAKINTZAK ELKARTRUKATZEKO LANBIDE PAREGABEA DA GUREA”

“JENDE ARRUNT ASKO ADITU BILAKATU DA IKERKETA PROZESUAN”

21. orrialdean, Borja Aginagalde, lanlekuan.

Goian, Aginagalde, Arrasaten egindako berbaldian.

horretan. Jakintzak elkartrukatzeke lanbide paregabea da gurea.

Beraz, asko ikasten duzue erabiltzaileengandik?

Hala da. Harreman horretan, eman ez ezik, jaso ere egiten dugu. Esan bezala, jende asko dabil atzera begirakoak aztertzen; eta datu asko dituzte pilatuta. Gainera, horietako asko aditu bilakatu dira ikerketak aurrera egin ahala. Duda barik, asko ikasten dugu euren gendak. Bestalde, erabiltzaileen artean ere sor daiteke harremanik. Alegia, herri txiki batean bizi garenez, ikerketan dihardutenen bideak gurutzatu egin daitezke tarteka, garai batetik atzera arbaso komun bat izanda. Horrek, nire ustez, bestelako aukera bat zabaltzen du: zuhaitz genealogiko orokorrak sortzea, familia bakarrera mugatu barik –Euskal Herri mailakoa, esaterako–. Finean, elkarri laguntzeko aukera aparta eskaintzen du ikerketaren munduak.

Bestalde, ibilbidean topaturiko dokumentuei dagokienez, noizkoa da zaharrena?

Oro har, 1300etik gaur arterainoko dokumentuak daude Euskadiko Artxibo Historikoa; hori bai, banakak dira XVI. mendera bitartean idatzirikoak. Aipatu beharrekoa da gustura aztertzen diren dokumentuak direla horiek: kurioak dira, pergaminoak gehienak. Beraz, ikusteko politak dira, orokorrean. Besteak beste, ekonomia alorreko idatziak eta testamentuak daude dokumentu zaharrenen artean. Halakoetan, gainera, ez da oso ohikoa jatorrizko dokumentua topatzea.

Eta bilatzen duenak altxorra topatu dezake. Zeuk Juan Sebastian Elkanok Carlos V.ari bidalitako gutun bat aurkitu duzu, ezta?

Digitalizatzeke zeuden dokumentuen artean aurkitu nuen Juan Sebastian Elkanok idatziriko eskutitza. Besteak beste, fabore batzuk eskatu zizkion Carlos V.a enperadoreari, munduari bira egitetik itzultzean. Gaur-gaurkoz, aurkitutakoen artean, hori da hark idatziriko –edo sinaturiko– dokumentu bakarra. Beraz, esan daiteke esangura handiko dokumentua litzatekeela. Dena den, oraindik ikertzeke dago; ondorioz, ezin ditzakegu guztiz ziurtatu horri buruzkoak. Horrelakoetan, tentuz ibili beharra dago. Azken finean, aintzat hartu beharrekoa dugu 1522an idatzitako eskutitz bati buruz dihardugula.

Batzuetan, aurreikuspenak hausten dira halakoekin...

Eguneroko kontua da hori. Iraganeko dokumentuek informazio asko eskaintzen dute; beraz, horien etengabeko azterketak aurreikuspenak hausten ditu sarri. Batzuek hasi aurretik finkatzen dute topatu nahi dutena; akatsa da hori. Finean, datuak landu ahala, hankaz gora jartzen doaz aburuak. Hori bai, esan beharra dago nork bere betaurrekoekin aztertzen dituela dokumentuak, eta, beraz, litekeena dela denek bertsio bera ez atzematea. ■■■■

Hitzik gabe

OSASUNA OTORRINOLARINGOLOGIA



Testua: Ane Ugarte
Otorrinolaringologoa
Argazkiak:
fortworthent.net

Azken asteetan bolo-bolo dabilen berria izan dugu. Shakirak bere mundu bira bertan behera utzi behar izan du, ahots-kordetako arazoak direla eta.

Bruta, ciega, sordomuda... kantu ezagun batean aurreikusten zuen bezala geratu da eta azaroaren 17an Barakaldora hurbildu behar ziren entzuleek hurrengo urtera arte itxaron beharko dute abeslariaren ahotsarekin gozatzeko.

Ahotsa da pertsonen artean gehien erabiltzen den komunikazio tresna, baita ezagutzak, pentsamenduak eta sentimenduak adierazteko funtsezko baliabideetako bat ere. Horregatik, ahots-kordetako arazoak ez zaizkigu arrotzak egiten; izan ere, nahasmendu hauek oso ohikoak dira ahotsaren profesionalen artean; irakasleak, dendariak, teleoperadoreak, telebista edo irrati esatariak, antzezleak, abeslariak... Profesional desberdinen artean ahotsaren patologia %17-%57 artean zenbatzen da. Biztanleria guztia kontuan hartuta, %5ek jasango dute noizbait disfonia arazoren bat.

Bi arrazoi nagusi

Ahotsaren patologia bi kausa nagusi ditu: alde batetik, lesio organiko batek sortutako gaixotasunak daude. Infekzio batek, tabakoaren keak sortutako hantura kronikoak edota korden paralisi akutu batek sortutako

disfonia izango ditugu. Beste aldetik, ahotsaren erabilera okerraren ondorioz sortutako lesioak bereiziko ditugu; azken hauek dira ohikoenak eta arazo kroniko gehien ematen dituztenak.

Askotan, ez dugu ahotsa ondo erabiltzen edo ohitura desegokiak ditugu. Intentsitate handiegiz edo doinu desegokiaz hitz egiten dugu, artikulazio-zurruntasuna edota arnasketa ezegokia dugu. Beste batzuetan, ohiturak edo lantokiko giroak ahotsa behartzera eramango gaitu: oihu egitea, eztarria gehiegi leuntzea, ahopeka hitz egitea, jarrera desegokiak, behartutako bokalizazioak...

Fonazio aparatua erabilpen okerrak eragiten duen sintoma nabarmenena disfonia da; ahots urratua, tonua jaitea, eztarrian zerbait izatearen sentsazioa... Hasiera batean, sintomak aldirokoak izaten dira; denborarekin, ordea, erabilpen ohiturak eta hantura kronikoa mantentzean, ahots kordetako lesioak eragingo ditu. Horrek sintomak areagotzea eta finko mantentzea eragingo du.

Ahots-kordetako lesio ohikoenak

Lau dira lesio ohikoenak:

Laringitisa: laringearen hantura da. Infekzio batek, tabakoaren keak edo erreflujo gastroesofagikoak areagotzen dute gaitza.

Reinkeren edema: ahots-korden hantura kronikoaren ondorioz, geruza ezberdinen artean mukia piltatzen sortzen da. Gaitza tabakoaren kearekin oso estu erlazionatzen da.

Polipo hemorragikoak: ahots-korden alde bakarreko lesioak dira. Intentsitate handiko esfortzu baten ondorioz sortzen da, nagusiki. Batzuetan, hemorragia korda osoan zehar zabaltzen da eta sintomak areagotu egiten dira.

Ahots-kordetako noduluak: disfonia sortzen duen lesio ohikoa. Noduluak ahots-kordak modu jarraituan behartzean sortzen dira. Aldebiko lesioak dira; oro har, korden erdialdean agertzen dira behin da berrizko traumatismoen ondorioz.


Tratamendua

Kasu arinenak neurri higieniko-dietetikoak jarraituz eta ahotsaren atsedenaldiarekin konpondu daitezke. Beharra baldin balego, botika antiinflamatorioak ere erabili genitzake. Behin ahots-kordetako lesioak finkatuta daudenean, ordea, interbentzio kirurgiko baten bidez kendu beharko dira, kordek euren funtzioa berreskura dezaten.


Prozesu kirurgikoa bezain garrantzitsua da ohitura txarrak zuzentzea, eta, horretarako, ezinbestekoa da logopeda baten laguntza. Intonazioa, arnasketa, gorputz jarrera, proiektzioa... lantzeko ariketak eta ahotsaren higiena ezagutzeko hainbat saio egitea gomendatzen da. Kasu gehienetan, kirurgia egin aurretik prestatzea komeni da, norberaren beharren arabera moldatzeko.

Oso inportantea da norberaren ahotsaren tonu eta intentsitatearen muga fisikoak ezagutzea eta ahoko


AHOTS-KORDETAKO NAHASMENDUAK OHIKOAK DIRA AHOTSAREN PROFESIONALEN ARTEAN



Normalak



Noduluak



Polipoak

nekearen lehen seinaleak antzematen ikastea.

Prebentzio neurriak

Norberak kontuan har ditzakeen zenbait neurri daude: batetik, eztarria ondo hidratatua mantentzea –botila bat ur alboan izan beti eta aldiro pixka bat edatea eta astiro irenstea–. Bestetik, karameluak dastatzek listu-jariatze prozesua bultzatzen du, eta eztarria leundu. Funtzio honetarako, limoizko edo eztizko karameluak dira onenak. Mentolezko karameluak edo txikleak, berriz, saihestu beharrekoak dira, narritadura arazoak sortzen baitituzte. Horrez gain, kafea, tea eta kola edariak saihestu egin behar dira, urdail urinen erreflujoa bultzatzen baitute. Bestalde, tabakoa saihestea funtsezkoa da eztarriko edozein gaitz prebenitzeko. Horrez gain, ez da komeni ingurune-zarataren gainetik hitz egitea, ezta denbora luzez hitz egitea ere: 60/10 araua erabiliko dugu –60 minutuan behin, 10 minutuko atsedena hartu–. Azkenik, solaskideekin distantziak laburtzea ere gomendagarria da eta ahotsa amplifikatzeko gailuak –mikrofonoa– erabiltzea jende aurrean hitz egiteko.

Giroko neurriak ere badaude: lantokiko baldintzak zaintzea –hezetasun maila, aireztapen eta aireberritzea eta aire korranteak kontrolatuta daudela ziurtatu–; gai kimiko narritagarrien erabilera murriztea; hautsa, aire-gozagarriak eta keak, kasu; eta giroko zarata murriztea. ■■■

Dordoka taldeak 25 urte

KIROLA BOCCIA ETA SLALOMA DIRA PRAKTIKATZEN DITUZTEN KIROLAK, NAGUSIKI

Testua: Eneko Azurmendi
Argazkiak: Xabier Sagarna

1992an sortu zen Dordoka Kirol Elkartea, Aspaceren barruan (Elbarritasun Zerebralaren Elkartea). Hain zuzen ere, Aspaceko kideei kirola egiteko aukera eskaintzeko helburuarekin sortu zen Dordoka. “Momentu hartan mundu mailan kirol egokitua sustatu zen, eta aukera hura baliatu zen elkarte hau sortzeko”, adierazi du Xabier Sagarnak, Dordoka Kirol Elkarteko koordinatzaileak.

Egoitza nagusia Donostian daukan arren, Bergaran, Arrasaten, Urretxun eta Irunen hainbat talde ditu. Gaur egun, 40 kirolari inguru daude Dordoka Kirol Elkartean, eta, horrez gain, 65 bazkide inguru daude, kuota batekin laguntzen dutenak.

Boccia eta eslaloma dira, nagusiki, elkarte horretako kideek praktikatzan dituzten kirolak. Horrez gain, atletismoa, txirrindularitza eta igeriketa ere bai, baina hor kirolari gutxi daude.

Boccia

Garun paralisia duen jendearentzako edota ezgaitasun fisikoren bat duen edonorentzako egokitutako kirola da boccia, petankaren antzerakoa. Kirol paralinpikoa da, 1984a ezkerro.

Bost kategorio ezberdin daude: BC1, nahiko kaltetuta –garun paralisia– daudenak eta laguntzaile bat behar dutenak bolak hartzeko. Gero eskuarekin botatzen dute; BC2, horren

kaltetuta ez daudenak. Bakarrik jokatzen dute, laguntzaile barik; BC3, gehien kaltetuta daudenak, laguntzaile bat daukate eta arrapala batekin botatzen dute pilota; BC4, garun paralisirik ez dute, ezgaitasun fisikoa bakarrik. Bakarrik jokatzen dute. Gehienak lesionatu medularrak dira. Azkenik, BC5, ezgaitasun fisikoren bat eta garun paralisia daukatenak. Hauek ere bakarrik jokatzen dute.

Eslaloma

Kirol hau ez da boccia bezain ezaguna, eta ez da paralinpikoa. Gurpil aulkiarekin zirkuitu bat egitean datza, bidean oztopo batzuk gaindituta eta erlojuaren

aurka. Sei kategorio ezberdin daude, Sagarnaren esanetan: “Lehenengo kategorian, gurpil aulki elektrikoa erabiltzen dute. Bigarrenean, oinekin bultzatzen dute aulkia atzeraka. Hirugarren, laugarren eta bosgarren kategorietan, eskuarekin bultzatzen dute, baina, kaltetze mailaren arabera, kategorio batean edo bestean lehiatzen dira. Seigarren kategorian, ezgaitasun fisikoa dutenak jokatzen dute”.

Elkarteko koordinatzaileak adierazi duenez, eslalomak ariketa fisikoa egiteko balio du, gehienbat, eta bocciak garuna garatzen ere laguntzen du. “Estrategia lantzen dute kirolariek, eta, horren bitartez, memoria ere garatzen



Ezkerreko orrian, Aritz Bikuña, eslaloma egiten. Eskuinean, goian, boccian, BC3an, erabiltzen duten arrapala.

Argazki nagusian, Bergarako taldea, kirolariak eta laguntzaileak. Behean, berriz, Dordokaren logotipoa.



dute. Psikologikoki eta mentalki garatu egiten dira kirolariak”.

Arrasateko taldea

Arrasateko taldea honako kirolari hauek osatzen dute: Jesus Mari del Amo, Iñaki Diaz, Nerea Otxoa, Mario Fuentes, Jon Arabaolaza, Aimar Gorostola eta Maider Larrañagak. Del Amok eta Fuentesek boccia praktikatzan dute eta gainontzekoek atletismoa, pisu jaurtiketa.

Laguntza lanetan ari diren boluntarioak Oihana Iborra eta Ane Astondoa dira.

Bergarako taldea

Bestalde, Bergarako taldea honako kirolari hauek osatzen dute: Amagoia Arrieta, Jose Agirrezabal, Nerea Egaña, Allil Yuseinov, Ane

Zabaleta, Iban Torres eta Aritz Bikuña. Lehenengo laurek boccia praktikatzan dute, Zabaletak pisu jaurtiketa, Torresek zakutxoan jaurtiketa eta Bikuña, eslaloma eta boccia, biak.



Laguntza lanetan ari diren boluntarioak, berriz, Maddi Agirrezabal, Ainhoa Mardaras, Ainhoa Lazkano, Izaro Aperribai, Olatz Uribe, Saioa Agirre eta Elena Etxeberria dira.

Agustin Toledo ere ezin ahaztu. Boccia entrenatzaile lanak egiten ditu, 2014a ezkerro. “1991n hasi nintzen eta duela hiru urte utzi nion jokalaria izateari, entrenatzaile izatera pasatzeko. Urte asko dira, eta nekatu egin nintzen”, dio.

Taldeko parte izateak, kirola praktikatzaz gain, harremanak sendotzeko ere balio diela onartu du Toledok. “Oso harreman ona daukagu, bai kirolarion artean, baita laguntzaileekin ere.

1994an Espainiako txapeldunorde izan zen bergararra, boccian. ■

Ikasketa agirien balioa nazioartean

ADITUEN ESANETAN NAZIOARTEKO ARAUTEGIA



Testua: Aina Bordes
Abokatua
Arg.: uncoma.edu.ar

Errefuxiatuen eskabidearen inguruan aritu nintzen aurrekoan, gaurkoan; berriz, eurekin eguneroko lanean ari naizenetik zenbaitetan atera izan den gaia jaso nahi izan dut paperean: zera da, beste herrialde batzuetako ziurtagiriak onartzen ditu Espainiak? Eritreako familia-liburuak edota Salvadorren ateratako Ingeniaritzako karrerak badute baliorik Espainiako Estatuan? Beste aldera ere plasmatu nezake galdera: Espainiako Estatuan onartzen diren ezkontza, jaiotza-ziurtagiri, unibertsitateko titulu, eta abarrek badute baliorik nazioartean?

Bizitza osoa aldean

Egunerokotasunean ikusten dudana gaia da honako hau. Grezia, Italia, Libanotik iristen hasi zaizkigun asilo-eskatzailak euren bizitza osoa bizkarrean dutelarik iristen dira. Baita beste edozein naziotatik datozen errefuxiatuak ere. Ikasketak dituzte hainbatetan, medikuak dira, irakasleak, familia dute zenbaitetan –euren alboan edota eurengandik milaka kilometrotara, haren berrien zain–. Eta hona iristen dira. Ez da lasaitasuna sentitzen dutena. Asilo eskatzailak dira, baina Espainiako Estatuak edozein unetan uka dezake euren eskaera. Bitarte horretan, ordea,

bizitzak aurrera segi behar du: seme-alabak izanez gero, jaiotza-ziurtagiriak behar dituzte edozein ekintza egiteko; ikasketa tituluren bat izanez gero, beharrezkoa dute hura Espainiako Estatuak onartzea, lan eskubidea izango dutenean erabili ahal izateko. Onartzen dira, ordea, beste estatu batzuetan eratutako titulu edo agiriak? Nola funtzionatzen du horrek? Lanak derrigortuta, eta interes propioak mugituta, gai horren funtzionamendua nolakoa den ikertu dut.

‘Hagako hitzarmena’

Mundu zenbat eta globalizatuago batera goazen heinean, beharrezkoa da nazioarte mailan zenbait akordio lortzea, gure joan-etorriak errazteko helburuarekin. Zehazki, *Hagako hitzarmena* dugu horietako bat, 1961eko urriaren 5ean sinatua. Estatu desberdinen dokumentu ofizialak nazioarte mailan legalizatzeko bide bateratua ezartzen du horrek. Hitzarmen horren barnean dauden estatuek era erraz eta bakarra akordatzeko dute euren estatuetakoko dokumentu ofizialak beste sinatzaile guztien artean errekonozituak izan daitezela.

Hagako apostilla deritzon tramitea dago akordio horren esentzian. Jatorrizko estatuak egiten duen zigilua da *Hagako apostilla*. Horren bidez, dokumentuaren autentikotasuna edota benetakotasuna ziurtatzen



GLOBALIZAZIOA DELA ETA, BEHARREZKOA DA NAZIOARTEAN ZENBAIT AKORDIO LORTZEA

da beste estatu sinatzaile guztien aurrean. Tramite bakarra eta eroso da. Arazoa: jatorrian egin behar dela, dokumentu originalarekin. Beraz, Europako Batasunetik kanpo denbora luzez joateko asmoa duenak aurreikusi dezala honako hau eta joan aurretik egin dezala tramitea. Estatu sinatzaileak zeintzuk diren jakitea oso erraza da, Espainiako Kanpo Arazoetako Ministerioak dauka estatuen zerrenda eguneratua. Latinoamerikako estatu gehienak, esaterako, akordioaren barruan daude.

Tramite gehiago

Eta zer gertatzen da hitzarmenetik at dagoen estatu batetik banator, edota bertara banoa? Kasu hauetan, dokumentuen legalizazioa bide diplomatikoaren bitartez egin behar izango da, eta joango naizen estatu bakoitzarekin tramitea errepikatu beharko da. Horretarako, dokumentu originalak jatorrizko estatuko Kanpo Arazoetako Ministerioak edota Hezkuntza Ministerioak zigilatu behar ditu lehendabizi –dokumentuaren izaeraren arabera, toki batean edo bestean

egin beharko da–. Horrek egiaztatzen du dokumentua autentikoa eta legala dela jatorrizko estatuan. Ondoren, jatorrian baita ere, joan nahi dudana estatuko ordezkaritza diplomatikora edota kontsulatura abiatu beharko dut beste zigilu baten bila. Bigarren tramite horrekin lortzen dena zera da, helmugako estatuak ere onartzea jatorrizko dokumentuaren balioa. Beraz, *Hagako hitzarmena* sinatu ez duten estatuak banoa, edo haiekin banator, bi tramite egin beharko dira. Eta gauza bera errepikatu beharko da hirugarren

estatu batera mugituz gero –*Hagako hitzarmena* sinatu ez badu–. Horrela gertatzen da, esaterako, Afrikako eta Asiako zenbait estaturekin. Errefuxiatu-eskatzailen egoera askotarikoa eta desberdina da kasu bakoitzean eta tramite horiek ez dira hain errazak izaten. Batzuetan, dokumentu originala lortzea izaten da, zoritxarrez, lehen urratsa euren kasuan. Baina gure kasuan, kanpora joatekotan bagabiltza, ondo dator hau jakinda aurreikuspena egitea, bertara iristean sustorik har ez dezagun. ■■■

Hilarion jatetxean dastatze menuak

OTORDUAN



Gabino Yarza
Sukaldeburua
Argazkiak: Ion Moreno

Arrasateko Hilarion jatetxean 27. Jardunaldi Gastronomikoekin jarraitzen dugu. Bertako eta sasoiko produktuak eskaintzen ditugu horietan, eta, esaterako, hauxe daukagu aukeran menu horretan, sasoi honetan: Gernikako babarrun-krema buzkantzarekin, Basatxerri-txitzarrarekin eta azarekin; eta zerbaren orri-mamia

foie freskoarekin, perretxikoekin eta onddoen saltsarekin.

Dastatze menuak

Gabonak iristear daude, eta gurean, beti bezala, hainbat dastatze menu izango ditugu aukeran egun horietan ere.

Hilarion menua izango da horietako bat, 24 euro balio duena, eta prezio horretatik gorako beste hainbat dastatze menu ere badauzkagu; horietan, hasierako hiru plater ematen ditugu hasteko, eta gero, plater nagusia kartatik

aukeratzen du bezeroak, gustuen arabera.

Beste menu kontzertatu batzuk ere eskaintzen ditugu, eta guztietan sartuta egoten da ardo ondua edota sagardoa, esaterako.

Beraz, edozein egunetan, jaiegunetan edota Gabonetako egun berezi horietan, gurean aukera zabala izango duzue.

Informazio gehiago jasotzeko, sartu gure webgunean, Restaurantehilarion.com helbidean, edo, erreserbak egin nahi izanez gero, deitu lasai. ■■■



Hilarion jatetxea

- **Webgunea:** Restaurantehilarion.com.
- **Helbidea:** Larrea plaza 5, Arrasate.
- **Telefonoa:** 943 77 01 69.
- **E-posta:** hilarionarrasate@hotmail.com.



Bakailaoa labean erreta hiru saltsarekin

Osagaiak (2 lagunendako)

- Bakailao-trontzoak, 250-300 g-ko 2
- Pikillo-saltsarako
- Tipulak, 2
- Pikillo piperrak, lata 1
- Ardo zuria, edalontzi erdi
- Ura, edalontzi 1
- Oliba-olioa
- Piper txorizeroa, koilarakadaxo 1
- Azenarioa, 1
- Gatza
- Saltsa beltzerako
- Tipulak, 2
- Piper berdeak, 3
- Perrexila, 3 adartxo
- Oliba-olioa
- Txipiroi-tinta, 3 poltsatxo
- Arrain fumeta, litro erdi
- Tomate frijitua, 100 cl
- Ogi txigortua
- Gatza
- Pil-pilerako
- Oliba-olio birjina, 4-5 koilarakada

Prestaketa

1. Saltsa beltza egiteko, erregosi txikitutako tipula eta piper berdeak. Gero, gehitu fumeta, tinta-poltsak, tomatea eta perrexila. Egosi 20-30 minutu inguruz su baxuan. Oso arina badago, gehitu ogi txigortua, xehatu eta txinotik pasa. Gatza zuzendu.
2. Pikillo-saltsa egiteko, erregosi tipulak eta pixka bat geroago azenarioa zatituta gehitu. Baita piper-lata, ardo zuria eta ura ere. Egosi 20-30 minutu inguruz su txikian. Oso arina badago, gehitu ogi txigortua, xehatu eta txinotik pasa. Gatza zuzendu.
3. Bakailaoa jarri ontzi batean eta busti oliba-olio birjinarekin bi aldeak. Labea 180 gradura dagoenean, sartu bakailaoa, 12-15 minutu inguruz. Labean hezetasuna mantentzeko, komeni da urez betetako kazola bat ere sartzea.
4. Bakailaoaren zukuak jarri zartagin batean eta pil-pila egiten saiatuko gara. Ez bada irteten, *berehalako lodigarria* deritzona gehitu urarekin eta mugitu hagaxka batekin.
5. Platerean jarri bakailaoa eta hiru saltsak, argazkian bezala.

Zailtasuna: ● ● ● ● ●

HILARION JATETXEARI ESKER
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Aurreko zozketako irabazlea:
Ana Mari Aranburu Murgizu (Bergara)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

“Modeloarena pazientzia handia eskatzen duen lana da”

MODA MODELAJEA

Testua: Maider Arregi
Argazkiak: Oihana Mendieta

Ogibidez sukaldaria den arren, Oihana Mendieta (Arrasate, 1988) modelo lanekin bateratzen ditu sukalde kontuak. Moda mundura kasualitatez iritsi zela azaldu du. **Nolatan sortu zitzaizun modelo lanak egiteko aukera?** Kasualitatez. Altueragatik beti animatu izan naute, eta modelo *casting* bat egin nuen Gasteizen. Hirugarren postua lortu nuen, eta ikastaro bat egiteko saria jaso nuen. Gasteizko Mclass moda agentziarekin dihardut egun. Baina ogibidez sukaldaria naiz. **Sakrifizio handiko lana da?** Hobetzen joateko eta segurtasuna izateko balio izan dit. Izan ere, jende artera lehen aldiz irteten zarenean, ez da erraza. Pazientzia handia eskatzen duen lana da.

Une asko esperoan eman behar dira: batetik, orrazkera dela; gero, makillajea... pazientzia behar da. **Arlo pertsonalean zer eman dizu?** Inor ez da perfektua, eta kalean edo edonon mila neska daude zu baino *hobeak*. Baina jarrera positiboa edukitzea da gakoa. Erdi gaixo joan izan naiz pasarela batera, eta, indarra eta jarrera positiboa aterata, ondo sentitu izan naiz; balio dudala sentitu dut. Nortasuna indartu dit; hasiera baten baino gogorragoa naizela esan dezaket. **Takoiekin ibiltzen ere ikasi duzu.** Hasieran, kostatu egiten zitzaidan takoi altuekin ibiltzea. Baina ikasi dut eroso eta gustura eramaten. **Positiboki eragin dizu, baina bestelako alderik ere egongo da.** Bai. Modelo lanetan hasi nintzenean, oso argal nengoen. Gogoratzen dut oso urruti iritsiko nintzela esaten zidatela. Txinara

eramango nindutela. Baina nik burua bere lekuan neukan, ez bainintzen oso gazte hasi modelo munduan. Nortasuna baneukan eta hankak lurrean nituen. Nire bizitza hemen daukat eta banekien horrek ez zidala jaten emango eta modelo lana osagarria zela. **Zein lan egin dituzu?** Pasarelako lanak egin ditut. Orain, aste barruan aukera gehiago dut Gasteizen bertan: Gasteiz On, Balenciagan eta Errioxan egin ditut modelo lanak. **Moda betidanik gustatu zaizu?** Nire moda propioa daukat; kar-kar. Egia da modelo naizenetik asko ikasi dudala eta gehiago erreparatzen diedala modari eta joerei. Estilo zainduagoa daukat, baina inoiz ez dut moda jarraitu. Izan ere, moda argazkiak ikustea asko gustatzen zait, neuk ere ikasteko. ■

Ezkerrean,
Mendieta,
ezkongai
soinekoarekin.

Argazki nagusian,
Isabel Zapardiez
diseinatzailearen
moda desfilean.



“HANKAK LURREAN DITUT
ETA BADAKIT OSO ZAILA
DELA MODELO IZATETIK
BIZI IZATEA”

“NORTASUNA INDARTU EGIN
ZAIT ETA HASIERAN BAINO
GOGORRAGO NAIZELA
ESANGO NUKE”



Gazteegi etendako karrera

MOTORRA IBAN RODRIGUEZ

Testua: Xabi Gorostidi
Argazkiak: Iban Rodriguez eta X.G.

Tarte laburrean Iban Rodriguez bergararrak ibilbide oparoa egin zuen autoen munduan. Oso gazte hasi zen maila aparta ematen, kart autoekin, eta 23 urterekin zirkuitu mailan Espainiako bi txapelketa irabazita zituen jada.

Clio-rekin birritan txapeldun
Kart autoekin 17 urtera arte aritu zen, eta handik gutxira hasi zen zirkuituetan lehiatzen.

“1990ean egin nuen debuta Espainiako Txapelketan, *Clio iniciación* mailan. 1.400ekoak zirelako jasotzen zuten *iniciación* izena. Hamar proba ziren, eta nik

azken lauretan hartu nuen parte. Geroago hasi arren, seigarren amaitu nuen sailkapen orokorrean. Hurrengo urtean, 1991n, proba guztiak egin nituen eta sailkapeneko lehen postuan amaitu nuen, nahiko alde handiarekin. Hamar probatik bost irabazi nituen eta beste bitan bigarren izan nintzen”.

Iniciación mailan jaun eta jabe izan ostean, Clio 16 balbula mailara egin zuen salto, 1992an. “40 auto inguru lehiatzen ginen eta Espainiako zirkuitu guztietan aritzen ginen nor baino nor gehiago: Jerez, Montmelo, Jarama, Albacete... Lehen urtean sailkapeneko hirugarren izatea lortu nuen eta bigarren urtean,

aldiz, txapelketako lehena, alde handiarekin”.

Zirkuitutik rallyetara
Renault-ekin emaitza ezin hobeak pilatu zituen, eta rallyetan lehiatzeko eskaintza egin zion auto etxe frantziarrak. “Renault Copa Williams autoarekin hasi nintzen igoeretan, eta lehenengo probatik aurrealdean hasi nintzen. Baina Renaultek ez zidan nik espero nuen babesik eman. Hirugarren proban arazotxo batzuk izan genituen eta ordezkoko pieza batzuk eskatu nizkion Renaulti; baina, nire harridurarako, esan zidaten ez zizkidatela ordainduko, eta txapelketa bertan behera uztea erabaki nuen. Oso gaztea nintzen, progresio itzelarekin, baina ez zuten nigatik apustu egin nahi izan”.

Pilotu ibilbidea amaituko zela zirudien, baina handik hiru urtera berriro etorri zitzaion aukera, Peugeot etxearen eskutik. “1996an, *Desafío Peugeot*-en lehiatzea proposatu zidaten. Avilesen eta Llanesen aritu nintzen eta bigarren izatea lortu nuen. Hirugarren lasterketan, Kordoban, lehen nindoala, abiadura-kaxa apurtu zitzaidan, eta utzi egin behar izan nuen, ez nuelako finantziario nahikorik”.

Itzultzea, beti buruan
Rodriguezek ez du autoen mundutik deskonektatu, eta proba batean parte hartzeko gogoz dago. “Beti izan dut itzultzeko gogo. Auto bat alokatu, eta egurra eman. Ederra izango litzateke”.



Argazki nagusian, Rodriguez, argazki zaharrak eskuan dituela.

Txikietan, zirkuitu mailan aritzen zeneko argazkiak.



‘Ofensiva 1’

1 Formulako gidari bat heltzeko asmoz Espainiako Auto Federazioak antolatutako beka programa zen, eta 1.000 pilotu inguruk hartu zuten parte. Gazteenetakoa izan arren, Rodriguez laugarren izan zen, eta Pedro Martinez de la Rosa 1 Formulako pilotu ohia izan zen bigarrena.

Dorleta Fernandez

GURE ARTISTAK

Testua: Arantzazu Ezkibel
Argazkiak: Arantzazu Ezkibel

Detaileak maite ditu Dorleta Fernandez oñatiarrak; hori igartzen da haren lanetan. Umetatik josi izan du; etxean erakutsi zioten amak eta izeba zahar batek. Horrez gain, beste zaletasun batzuk ere baditu; sukaldaritza, esate baterako. **Nola hasi zinen eta non ikasi zenuen josten?**

Beti gustatu izan zait jostea. Ama ikusten nuen josten, baita izeba zahar bat ere. Nik ere ikasi nahi nuen eta haiei galdetzen nien nola egiten ziren gauzak. Hala, panpinei arropak egiten hasi nintzen. Erakusten dizunak ondo josten baldin badu, detaileak erakusten dizkizu hasieratik; hala, umetatik dakit albaintzen, tela mozten, tolesak egiten... **Eskulanekin txikitatik zabilta. Ez zara geldi egotekoa.**

Nik gogoratzen dudana lehenengo laborea gurutze-puntua da. 14 bat urte izango nituen; atzetik zakarra geratu arren, egin egiten nuen. Nik ez dut ulertzen nola egon daitekeen sofán ezer egin barik. Ez da nire buruan sartzen.

Orain dela urte batzuk jostintza tailerra eskaini zenuen.

Bezero batek esan zidan ikastaro bat eman behar zuela, eskulan dekoratiboei buruzkoa; eta esan

zidan ondo egongo zela nik jostintzari buruzko ikastaro bat ematea. Udaletxean aurkezteko nire burua. Eta esan nion hori larregi zela, nik nire lana nuela eta ea zela egingo nuen hori. Bada, animatu egin ninduen eta ikastaroa eskaini nuen: 24 laguni erakutsi nien makinarekin josten, baina euren makinekin! Nik nire makina erabiltzen dakit; ikastaroa egin ahal izateko, tutorial mordoa ikusi nituen Interneten.

Artisau azoketan ere ibili zara zuk egindako poltsak, nezeserrak eta bestelakoak saltzen.

Bai. Artisau azokan parte hartzeko aukera sortu zitzaidan, eta, negua zenez, denbora izan nuen gauzak prestatzeko; kontua da ondoren ezin izan nituela jendeak eskatutako enkarguak egin. Ez nuen denborarik. Eskulanak egiteko ez ditut txatalak erabiltzen, ordaindutako telak baizik; eta jendeak esaten zidan hori igarri egiten zela. Gustuz egiten ditut horrelako gauzak, ez dirua irabazteko.

Diru asko gastatzen da horrelako zaletasun batekin?

Zaletasuna izateko, diru asko da. Telak oso garestiak izaten dira; gainera, saltzen ez duzunarekin zer egin behar duzu?

Zer duzu esku artean orain?

Gortina batzuk egiten nabil, eskuz, laboreekin. Gainera, Gabonetarako, diru-zorroak egiten nabil.

Gabonetan, familia artekoek beti espero dute zerbait?

Iaz gailetak oparitu nituen eta jendeak asko eskertu zidan. Jendeak beti espero du zerbait, baina ez dute ezer exijitzen.

Sukaldaritza da duzun beste pasioetako bat?

Iaz neguan BCCra kurtso bat egitera joateko gogoarekin geratu nintzen, eta ea aurten egiteko aukera dudana. ■



Dorleta Fernandez, bere irudia den orratzontzia eskuetan duela, lanerako prest.

Orri honetako irudietan, Fernandezek egiten dituen lanak.



“Guztiok dugu gure barrua ez zabaltzera bultzatzen gaituen zerbait”

KULTURA ARANTZAZU IDIGORAS OTAEGI IDAZLEA

Testua: Aitziber Aranburuzabala
Argk: A. A. eta A. I.

Ogibidez, Arrasate Musikaleko irakaslea da Arantzazu Idigoras Otaegi bergararra; eta zaletasunez, idazlea. Helduentzako *Sueños del ayer* eleberria argitaratu berri du eta *Isilpeko mamuak*. *Baztan* liburua du labertzeko prest.

Amets erotiko bat oinarri duen istorioa asmatu duzu. Norena?

38 urte dituen Rebeka Roig madrildarra da protagonista. Moran psikiatraren bulegoan abiatzen da liburua; izan ere, burutik kendu ezin duen amets erotiko bat du Rebekak, eta horren azalpenaren bila doa. Neska batekin harreman sexualak ditu ametsen; ez du, baina, ametsaren esanahia edo zergatia ulertzen, gizonak gustatzen zaizkiolako, edo hori da berak uste izan duena. Ez du argi ikusten nor den beste emakumea, hark eskumuturrean duen tatuajea bakarrik ikustea lortu du, arrain baten irudia.

Hortik abiatuta, hainbat gairen gainean hausnartzeko bidea ematen duzula diozu.

Bai; bisexualitateaz, bereziki, baina traman zehar beste hainbat gai aterako dira; horien artean, seme edo alaba bat hiltzearen ondorioz dagoen dolua. Eleberriko lehenengo hitzek dioten moduan, Rebekaren bizitzak sekulako bira emango du psikiatraren bulegoan sartzen denean; bere buruan galduta zeuden hainbat kontu azaleratuko direlako, batetik, eta, era berean, ikusiko duelako psikiatrak ere arlo pertsonalean



- **Izenburua:** Sueños del ayer.
- **Generoa:** Eleberri erotikoa.
- **Argitaletxea:** Vivelibro.
- **Orrialdeak:** 160.

bere miseriak eta arazoak dituela, beste edozein pertsonak bezala. **Rebekaz eta medikuaz gainera, beste pertsonaia batzuk ere badaude. Zeintzuk eta zelakoak?** Biki batzuk agertuko dira, neska bat eta mutil bat, baina ezin dizuet aurreratu zein den Rebekarekin duten harremana. Pertsonaiak ondo lantzen saiatu naiz; oso kontuan izan dut, esaterako, bikiei buruz idazterakoan, euren izaeran nabarmentzea bikiak direla eta ia berdin sentitzen dutela edo berba egiteko modu bera dutela. Zaila egin zait hori, pertsonaien arteko elkarriketak idazteko orduan. Lau pertsonaia nagusiez gainera, bigarren mailakoak ere badaude. **Genero erotikoa kokatuta dago, baina misterio puntua ere badu?**

Dramaren eta eleberri erotikoaren traza batzuk ditu istorioak; berez, 16 urtetik gorakoendako idatzita dago. Liburuaren erdiaren inguruan hilketa batzuk izango dira eta istorioak aurrera egin ahala misterioa sendotzen joango da, baina argituko da gero guztia, irakurlearendako edo idazlearendako bakarrik argitzen bada ere. Pertsonaiek erdiaren zati bat bakarrik jakingo dute.

Zelan dago kontatuta?

Kontakizun kronologikoa da, une batean denboran atzera egiten badu ere.

Zergatik genero erotikoa?

Uste dut guztiok dugula erotismo puntu bat eta gure barrua edo arima besteei guztiz ez zabaltzera bultzatzen gaituen zerbait.

Irakurle fina zarela diozu;

irakurtzen duzunak eragin dizu idazterakoan?

Ezetz esango nuke, ez dakit, denetik irakurtzen dut; batzuk aipatzearren, Ken Follet, Carlos Ruiz Zafon eta Toti Martinez de Lezea... Eragina, akaso, filmeko pertsonaiek bai (David Cronenberg, 1988). Askok gustatzen zait Jeremy Ironsek egiten duen bikien interpretazioa.

Zergatik gaztelaraz?

Gaztelaraz sortu zen horrela sortu zelako, baina ez dut arazorik euskaraz idazteko; aurretik euskaraz idatzi nuen beste bat. *Sueños del ayer* euskaraz ere irakurri ahalko da, gure nahia otsailerrako ateratzea da. Arrasate Musikaleko nire ikasle bat ari da buru-belarri itzultzen; Nerea Molano hernaniarra da hura,



Ingeniaritza ikasten ari da MUUn eta Jurasikoen nire taldeko kidea da; saxofoi kontzertinoa jotzen du.

Zelan izan da argitaratzeko prozesua?

Euskal Herriko hainbat etxetan aurkeztu nuen, baina, gustatu zitzaaien arren, eurentzako ez zela une aproposa esan zidaten. Vibelibrokoen atea jo nuen, eta irakurri eta baietz esan zidaten,

“HELDUENDAKO DA; DRAMAREN ETA ELEBERRI EROTOKOAREN TRAZEKIN”

“BIDEAN DUT BIGARRENA, ‘ISILPEKO MAMUAK. BAZTAN’ IZENEOA”

baina hainbat pasarte moldatzeko eskatu zidaten, tonu erotikoa igotzeko proposatuta.

Gustura zaude emaitzarekin?

Orain dela bi urte hasi nintzen lan honekin; eta bai, pozik nago, eta, dirudienez, irakurleak ere bai. Jaso dudan feedbacka ona da, eta ondo saltzen ari da.

Non eskuratu dezakegu?

Liburu dendetan eska daiteke, baina garraio-kostuak ordaindu behar dira. Egokiena une honetan Amazonen bidez erostea da; hamar eurotan, garraio-kostuak barne doaz. Eroskin saltzeko berbetan ari gara.

Bidean duzu, baina, bigarrena.

Bai, aurrez aipatu dugun hori: *Isilpeko mamuak*. *Baztan*. Eleberria da hori ere, baina erotismorik gabekoa. Misterio edo suspense trama da, eta hori ere helduendako idatzita dago. Emakume batek izan duen zaldi istripu batetik abiatzen da, baina konturatuko dira ez dela istripua izan, hilketa baizik... Herrian guztiek dute isilpeko sekretutxoren bat... Isolda protagonistak argituko du guztia. Bi argitaletxetan ari dira irakurtzen eta laster jasoko dut erantzunen bat.

***Sueños del ayer*-era itzulita, Bergaran, zure herrian, aurkeztekoa zara.**

Bai; abenduaren 15ean izango da, Irizar jauregian, iluntzeko zortzietan. Interesa duten guztientzako daude atek zabalik; aurkezpen txiki bat, ondoren ikusleen galderak erantzuteko prest izango naiz, eta luntx txiki batekin borobilduko dugu. ■■■

Nobela bizi-bizia

LIBURU ARTEAN



Jenisjoplin

Egilea: Uxue Alberdi
Argitaratzailea: Susa
Argitaratze urtea: 2017
Generoa: Eleberria



Testua: Andoni Urzelai
Idazlea

Gustura irakurri dut Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* nobela, nahiz eta, dena esatera, ez nauen guztiz asebate. Pertsonaiekiko sentitu dudun urruntasunaren kausaz, seguruenik. Hain iruditu zaizkit modu monolitiko samarrean eraikiak –urrun daukadan adin bati atxikiak, igual–, non apurtxo bat hotz edo utzi nauten. Hori esanda, nobela gomendagarria da erabat. Eta hasi eta buka jarrialdi pare baten irakurtzen direnetakoa, aurrera egin ahala ez du-eta kontakizunak interesik galtzen.

Nerea Vargas izeneko emakume bat da *Jenisjoplin* nobelako pertsonaia nagusia. Hiriko errebaletan jaioa, guraso ezkertiarren alaba, emakume konprometitu eta militantea da Nerea. Irrati libre bateko bultzatzailea da protagonista nagusia beste zenbait lagunekin batera, eta zelatan daukate polizia. Preso eraman dute

kideetako bat. Atezuan daude gainerakoak, egoera ia klandestinoan. Gertakari hori du abiapuntu nobelak. Hortik aurrera, eta Nereak daukan osasun arazo larri bat medio, Euskal Herriko garai gatazkatsuenetan murgilduko gaitu autoreak.

Nobela, edozelan ere, gehiago da pertsonaia nagusiaren barne-kezken kontakizuna, duela

IRAKURTERRAZA DA ELEBERRIA, ETA NAGO GUSTURA IRAKURRIKO DUTELA, BATIK BAT, GAZTEEK

zenbait urteko gizartearen erradiografia edo kronika baino. Disidentzian hezitako emakumea da Nerea Vargas, eta bere begiradak barneratuko gaitu borroka eta konpromiso sozialean zaildutako militantearen larruan.

Bi gauza azpimarratuko nituzke Uxue Alberdiren azken nobelan. Batetik, solasaldien indarra. Nobelako elkarrizketak bizi, zorrotz eta sakonak dira. Erritmo izugarria ematen diote kontakizunari eta irakurlea erraz lotzen dute istoriora. Berrikerak asmatenez eraikiak daude, eta dibertituak suertatzen direnez, modu arinean eroaten dute irakurlea gairik sakonenen muinera.

Bestetik, Uxue Alberdik nobelan darabilen idazlerra zehatz, aberats eta aldi berean zolia. Irakurterraza da eleberria, eta nago gustura irakurriko dutela, batik bat, gazteek, adin batean sartutakoek baino errazago egingo baitute bat protagonistaren kezka existentzialekin. ■■■

Goiena Klubaren txokoa

Euroliga Goiena Klubean!



Vs



BASKONIA - UNICAJA PARTIDURAKO 4 SARRERA BIKOITZ DITUGU.

Abenduaren 7an, 20:30ean Buesa Arenan jokatu den partidurako.

PARTE HARTZEKO: ABENDUAREN 4RA ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Baskonia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Bertsozale Elkarteari esker

Barakaldoko finaleko saiorako sarrerak ditugu.

Barakaldo / BEC / Abenduaren 17an / 11:00etan eta 16:30ean
Epea parte hartzeko: abenduaren 11a

Plateruenari esker

Glaukoma taldearen kontzertua.

Plateruena / Abenduaren 9an / 22:30ean
Epea parte hartzeko: abenduaren 4a

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Bertso / Glaukoma" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu orain 2018rako 56€ ordainduta eta abenduan doan jasoko duzu.
Deitu: **943 25 05 05**. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Luis Peña Gantxegi

GURE ALTXORRAK OÑATI

Testua: Mireia Bikuña eta Wikipedia
Argazkiak: Wikipedia

Donostiako *Haizearen orrazia*-ren aita izan zen. Eduardo Txillidarekin elkarlanean egindako proiektua izan zen Luis Peña Gantxegi arkitekto oñatiarrak egindako lan izarretako bat. Peña Gantxegi-Txillida binomioa oso emankorra izan zen. Gasteizko Foru Plaza ere elkarrekin egin zuten.

Asisko San Frantzisko eliza
Oñatin jaio zen. 1926ko martxoaren 29an, baina ikasketak Madrilan egin zituen. Arkitektura Eskolan diplomatura lortu ostean, segituan hasi zen Zarauzko Vista Alegre etxebizitza-dorrea egiten, Juan Carlos Encioren batera. Gune hartan egin ziren dorreetako lehen izan zen.

1976an Bartzelonako Arkitektura Eskolara joan zen irakasle jardutera, baina, aurretik, hainbat eraikin egin zituen. Bereziki, Mutrikun. Han egin zuen bakarkako lehen lana: Iberriaga etxebizitzak. Ostean, beste hainbat: Aizetzu etxebizitzak, Imanolena etxea eta Larreina etxebizitzak, besteak beste.

Esanahi berezia dauka 1968an Gasteizen egin zuen Asisko San Frantzisko elizak. Eraikin ederra, baina konnotazio latzak dituena. Han gertatu zen 1976ko martxoaren 3ko sarraskia. Eliza barruan bilduta zeuden milaka langileak indarrez atera zituen polizia armatuak.



Donostiako Arkitektura Eskola
Bartzelonan egindako sei urteak –1976tik 1982ra arte– oso mamitsuak izan ziren. Oriol Bohigas arkitekto katalana ezagutu zuen han, eta elkarrekin sortu zuten Donostiako Arkitektura Eskola. Hasierako urteetan, Bartzelonakoaren menpe egon zen. Ostean, Euskal Herriko Unibertsitatearen eskola izatera pasa zen.

Madrilen ikasi eta Bartzelonan irakasle lanak egin arren, bere artelanak eta eraikinak Euskal Herrian daude, gehienbat. Inguru natural eta kulturean integratuta egon zitezen ahalegintzen zen. Euskal tradizioari fidela izaten ere

ahalegindu zen. Horren adibide nagusia da Donostiako Tenis Plazan egokitu zuen Haizearen Orrazia. Itsasoari begira egoteko eta hausnartzeko lekua.

Euskal arkitekturari egin zion ekarpenengatik “euskal arkitektura berriaren aitzatza” jotzen dute askok.

Oiartzunen, Hernanin, Tolosan, Villabonan, Andoainan, Añorgan, Pasai Donibanen eta Bilbon daude Peña Gantxegiren lanak. Baita jaioterrian ere. Oñatin, Abarka etxeak egin zituen, 1991n.

Urrezko Domina saria

Izandako ibilbide oparoak hainbat sari jasotzeko aukera eman zion oñatiarrari. 1997an, arkitekturako Munibe saria jaso zuen. 2004an, aldiz, bizitza osoan egindako lanagatik Espainiako Arkitektoen Eskolako Urrezko Domina jaso zuen. “Arkitektura Arte Ederretako beste diziplina batzuekin lotu izana eta bere diseinuan maila handia” goraipatu zuten Peña Gantxegiren lagunek sari banaketa hartan.

2005ean, Mutrikun saritu zuten, han eraikitako etxeengatik. Mutrikuko Berdela saria eman zioten.

Hainbeste lan egin zuen Mutrikun hilobiratu zuten, 2009an. Azken uneak Donostian eman zituen, lanean, alaba Rociorekin eta suhi Mario Sangallirekin batera zeukan arkitektura bulegoan. Hil baino lau urte lehenago, Tolosako Leidor zinema-aretoa zaharberritu zuen. ■■■



Ondoko argazkian, Luis Peña Gantxegi oñatiarra; eta alboko argazki txikian, hari buruzko liburua.

Orri honetako argazki nagusian, Donostiako *Haizearen orrazia*. Txillidarekin egindakoa.

Argazki txikietan, Gasteizko Foru Plaza eta Tolosako Leidor zinema-aretoaren kanpoko aldea.





Amaia Pavon
@amaiapavon
Irudia: Norvege-fr /
PMK

Marketin irizpideak ikus-entzunezkoetan

Nazioartean ezagun egin da Norvegiako telebista publikoan ekoiztu den *Skam* telesaila –ingelesez *Shame* izenaz ezagun egin da; *lotsa* esan nahi du–. Gazteen problematikaz jarduten du ikuspuntu errealistatik. Bete-beteen asmatu du gazteei interesekoak zaizkien istorioak kontatzen, haien egunerokotasunean berbaigai diren auziak pantailara eramaten eta oraindik ere erakusten posible dela gazteekin asmatzea telebistan. Erronka zaila izan ohi da 12 eta 18 urte bitartekoentzat pentsatutako ikus-entzunezkoak sortzea. Askotan hitz egin da aldaketa bera dela adin-tarte horretako egitate nagusia, eta horrek eragozten duela gazteentzako edukia irudikatzen, eta zailagoa dena, fidelizatzen.

Skam telesailak, ordea, erakutsi du gazteentzat sortutako edukien arrakastaren atzean dagoen erronkarik zailena dela sortzaileen egoa kudeatzearena. Helduaren ikuspegia albo batera uztea eta gazteen problematikan murgiltzea eskatzen du horrek, eta lanketa horretan, akaso, eroso ez zaizkigun eremuetan sakontzea eta horiei plaza ematea.

Horrela azaldu zigun auzia Ingvill Marie Nyborg ekoizle norvegiarrak, orain gutxi izandako jardunaldi baten. *Skam* telesaila ekoiztu baino lehen, hilabete luzeak egon ziren aztertzen nerabe norvegiarren errealitateak, azpi-kulturak, bizitza ohiturak eta ardurak. Denbora eta



'SKAM' TELESAILAK GAZTEEN PROBLEMATIKAZ JARDUTEN DU

dirua, noski, horretan inbertituta. Horren harira, Nyborgek aipatu zuen norvegiar telebistan marketin-estrategien irizpideekin egiten dutela lan ikus-entzunezkoetan. Metodologia horren iturburuan dago ondo aztertzea audientziak dituen beharrak, eta behar horiei erantzuteko bitarteko egokiak bilatzean dago gakoa, betiere, kontuan hartuta, konpetentziak zer egiten duen.

Horrek esan gura du zerbait sortzera goazenean formulatu beharreko galdera ez dela: “Gustatuko zaio audientziari sortuko duguna?”; baizik eta: “Ba al dauka audientziak sortuko dudana eduki honen beharra?”. Zerbaiten beharra izatearena ere erabat erlatiboa da, baina beste aldi baterako eztabaida luzea da hori. ■

Testua: Itziar Larrañaga



Aibo

Txakur-robota. Sony. 1.500 euro
Lehenengo modelotik 18 urte pasatu ostean kaleratu du Sonyk Aibo txakur-robot berriua, eta oso garesti. 2,2 kilo pisatzen du, eta ahotsak ezagutzeko gaitasuna eta adimen artifiziala erabiltzen du. Begietan integratuta daraman kamerari esker, inguruko egoeraren arabera jarrera egokitu dezake. Horrela, pixkanaka, ikasten joateko gaitasuna dauka.



HASEE T6-X5

Ordenagailu eramangarria. HASEE. 850 euro

Enpresa txinatarraren T6-X5 God Of War modeloia jolasteko edo ohiko ordenagailu eramangarri moduan erabiltzeko dago diseinatuta. 15,6 hazbeteko pantaila dauka, 1920x1080 p-ko bereizmena eta lau nukleoko Intel i5-7300HQ dakartzatza. 8 GB-ko RAM eta barne-memoriarako terabyte 1 ditu ezaugarrien artean.

Sweam

Poltsikoko proiektorea. Sweam. 500 euro

Proiektore adimenduna. Horrela definitzen dute sortzaileek, telebistak eskaintzen duena eta mugikor baten eramangarritasuna konbinatzen baititu. Neurri txikiko ordenagailu batez hornituta dago eta ukipen-pantaila bidez kontrolatzen da. Barne-memoria 16 GB-koa da. Orain, Kickstarter webgunean dago, finantziazio bila.



Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)




Arrotza

Hemen ageri diren elementuak jardun edo ofizio jakin batean erabiltzen dira normalki. Denak, salbu eta bi. Zeintzuk dira gainerakoekin bat ez datozen bi gauzak, jardun jakin horretan erabiliko ez genituzkeenak?

Itzala

Zein da karramarro honi dagokion itzala?
Bakarra da zuzena.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

JAIOBERRIAK



Nora Kortabarria Aranzabal

Aramaio. 3,100 kilo. Azaroaren 25a. Gurasoak: Itsaso eta Oier. Argazkian, Nora, amama Klaritarekin.



Mariñe Gabilondo Larrañaga

Bergara. 3,100 kilo. Azaroaren 24a. Gurasoak: Maite eta Ibon. Argazkian, Mariñe, amaren besoetan.



Oihan Fernandez Plumed

Bergara. 3,430 kilo. Azaroaren 23a. Gurasoak: Susana eta Jose Miguel. Argazkian, gurasoekin.



Miren Ozerinjauregi Loiola

Durango. 3,280 kilo. Azaroaren 22a. Gurasoak: Anaitz eta Mikel. Argazkian, Miren txikia, adi-adi.



Ana Riego Nobre

Arrasate. 2,240 kilo. Azaroaren 20a. Gurasoak: Garazi eta Luis. Argazkian, amama Loliren besoetan.

Jaio da!



Eman jaiotzen berri **PUNTUA**n eta **Interneten**.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz
GOIENAren egoitzara.

Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak
bakarrik argitaratuko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA
HARAKIN MAISUAK

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 —
GURE BASERRITARREKIN
CON NUESTROS BASERRITARRAS



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

ANTZUOLA:

GABILONDO ARREGI HARATEGIA - Kalebarren, 5

BERGARA:

LETURIA HARATEGIA - Pedro Deuna, 24

ORATI:

JESÚS ODRIÓZOLA HARATEGIA - Arantzazuko Ama, 2 Behea
ANTXON HARATEGIA - San Lorentzo, 5